

Hona hemen "nire" frantsesa lantzen jarraitzeko aukeratu dudan material berria: Yuval Noah Harari idazle ospetsuaren "Homo deus. Une brève histoire du futur" liburuaren frantsesezko bertsioa. Liburua irakurrita neukan, eta noizbait uste dut aipatu nizuela "Ganbara"ko fitxategiren batean. Nobedadea liburuaren audio-berstioa da.

Duela gutxi, "Sapiens. A brief history of humankind" liburu audiodunaren ingelesezko bertsioa bukatu nuen, eta orain beste horrenbeste egingo dut egile berberaren "Homo deus"en frantsesezko bertsio honekin.

Aukeratu dugun edo aukeratu ditugun hizkuntzen fonetika hobetzen, sakontzen eta lantzen jarraitzeko, liburu audiodunak erabiltzea benetan merezi du. Edota gogor ahaleginduta ikasi duguna ez galtzeko, besterik gabe.

Bigarren edo hirugarren hizkuntzen giltzarrietako bat gutxieneko errutina bati eustea da; baliteke horrek balio ez izatea askoz gehiago aurreratzeko, baina bai behintzat atzera ez egiteko, hau da, daukagun mailari eutsi ahal izateko —berdin dio gure maila zein den: baxua, ertaina ala altua.


Bakoitzak egin behar du ahal duena, bakoitzaren egoeraren eta aukeren arabera. Zaindu ere egin behar dugun eta harro sentiarazi behar gaituen ama-hizkuntzaz gain, beste hizkuntzaren bat edo beste hizkuntza batzuk lantzea ere harro egoteko motiboa da beti.

Ahaztu ere ez dugu egin behar zeinen garrantzitsua den, esaterako, ingeles ikasleentzat ez baizik eta ingeles natiboentzat pentsatuta dauden liburuak, aldizkariak, e.a. irakurtzeko gai izatea. Maila horretara iritsiz gero, hizkuntza horren dimentsio berri bat zabalduko zaigu eta hizkuntza horretan gertatzen den kultur transmisioaren gurpilaren barruan sartuko gara. Jakina, horrek berdin-berdin balio du ingeleserako, frantseserako edota beste edozein hizkuntzatarako.


Ez dakit zehatz-mehatz zenbat denbora beharko dudan liburu audiodun hau bukatu arte, baina, orokorrean, horrelako irakurketak presarik gabe planteatzen ditut. Gainera, ez daukat munduko denbora guztia "frantsesez edo ingelesez irakurtzeko", ezta nahi ere

(euskaraz irakurtzeari ematen diot lehentasuna). Bizitzarekin lotura duten jarduerak eta ardurak ahaztu gabe: lana, familia, atsedena...

Aipatzen dizuedan materialaren karatulak honako hauek dituzue:



Liburua



Audio